



AGINDUA, 2026KO APIRILAREN 15EKOA, OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA EKONOMIA ETA OGASUN SAILAREN 2024-2027 LAURTEKORAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO AGINDUA.

Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren dirulaguntzen jarduna alde aurretik planifikatu behar da, eta, horretarako, lau urteko indarraldia izango duen plan estrategiko bat egin beharko da. Plan hori sail bakoitzeko titularrak onartu beharko du.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2024ko apirilaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen sail horren 2024-2027 laurtekorako dirulaguntzen plan estrategikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolakuntza berria, gaur egun, Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretutik dator. Dekretu horrek, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Hala, antolakuntza berriaren arabera, orain Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari dagozkio iraungitako Ekonomia eta Ogasun Sailari zegozkion egiteko eta jardun-arlo jakin batzuk. Kasu horietako bat da dirulaguntza-lerro hau: “*EAEko Ekonomiako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren II. edizioa*”, hain zuzen ere “*EAEko ekonomia aztertu eta jarraitzea*” helburu estrategikoaren barruan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren 61111. programan.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolamendu-egitura berrira egokitu behar da plan estrategikoa, bai eta aipatutako Ogasun eta Finantza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburu estrategikoa ezabatu ere.

Bestetik, Finantza Politikako Zuzendaritzaren (gaur egungo Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspen Zuzendaritzaren) 6311. programaren helburu estrategikoa da “*ETEEi eta banakako enpresaburuei finantzaketan laguntzea*”. Helburu horren barruan dirulaguntza-lerro bat baino gehiago dago, baina guztiak ere norabide batekin: EAEko enpresa txiki eta ertainen nahiz banakako enpresaburuen finantzaketa-baldintzak hobetzea.

2025eko martxoaren 3an, Euskal Finantza Aliantza eratu zen; izan ere, Eusko Jaurlaritzak, Elkargi EBBk eta beste zortzi euskal finantza-erakundek orduantxe sinatu zuten protokoloa, lankidetzeta publiko-pribatuaren esparru gisa, finantza-ahalmenak norabide berean bat etor daitezen eta Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta



industrialaren zerbitzura jar daitezten. Euskal Finantza Aliantza sortu den unean, nazioarteko desafioak eta lehiakortasun-erronkak batera datoz, merkatua egiturazko trantsizioen mende dagoelarik, hala nola trantsizio energetikoaren, digitalaren eta demografiko-sozialaren mende.

Euskal Finantza Aliantzaren helburuekin dituen konpromisoari eutsiz, Eusko Jaurlaritzak 1.000 milioi euro inguru bideratuko ditu Euskadi Eraldatuz 2030 planean zehaztutako finantza-tresnen bitartez, plan horren xedea baita euskal enpresa-sarearen eraldaketa bizkortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ustez, Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruaren barruan beste dirulaguntza-lerro bat sortu behar da, haren bidez inbertsio estrategikoak ahalbidetu daitezten maileguak emanez eraldaketa energetikoa, jasangarria, digitala, teknologikoa, industrial edo hazkuntzakoa lortzea xede duten proiektuei lotutako inbertsioetarako: Indartuz finantzaketa-lerroa, euskal enpresa-sektorea eraldatzekoa.

Elkargi EBBk abalatuko ditu mailegu horiek eta EAeko Administrazioak birfinantzatzeko ditu; hala, elkarrekiko berme-baltzuek kobratutako abalaren % 0,75eko komisioa % 100ean egongo da diruz lagunduta. Horrez gain, beste neurri batzuk hartuko dira, esaterako, finantza-laguntza emateko programatik eratorritzen diren balizko kobraezinak zati batean birfinantzatzea eta Elkargi EBBren kapitalari ekarpena egiteko konpromisoa hartzea, betiere programan duen esku-hartzeak ez dezan bere kaudimenean murrizketarik eragin.

Eragiketa horiek ahalbidetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Okorrorak hitzarmena sinatuko du Elkargi EBBekin. Era berean, hitzarmenak sinatuko dira orobat Elkargi EBBrekiko hitzarmenaren babesean formalizatzen diren mailegu-eragiketak finantzatzeko interesa duten finantza-erakunde guztiekin. Horrez gain, Finantzen Euskal Institutuak, esleituta dauzkan egitekoak baliatuta, mailegu-eragiketak eman ditzan aukera ere badago aurreikusita.

Horiek horrela, dirulaguntzen plana aldatu egingo da eta aipatutako dirulaguntza-lerro berria sartuko; hala ere, planari estaldura emateko bideratutako aurrekontu-beharrizanak dagoeneko jasota daude abenduaren 23ko 7/2025 Legean, zeinak onesten baititu Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Okorrorak.

Horregatik, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Aldaketa hauek onartzea Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2024-2027 laurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (sailburu honen 2024ko apirilaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen).

1.- Planaren titulua aldatu, eta honela geratzen da idatzita:

“Ogasun eta Finantza Sailaren 2024-2027 laurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa”.

2.- Dirulaguntza-lerro hau ezabatu egiten da: *“EAEko Ekonomiako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren II. edizioa”, “EAEko ekonomia aztertu eta jarraitzea”* helburu estrategikoaren barruan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren 61111. programan.

3.- 2. dirulaguntza-lerroa aldatu egiten da: *“Kobraezinak estaltzea, eta elkarrekiko berme-baltzuetako hornidura teknikoen funtsa indartzea”*, eta beste lerro bat gehitzen da: 4. *“Elkargi EBBk formalizatutako maileguen abal-komisioaren % 100 diruz laguntzea, Indartuz finantzaketa-lerroa (enpresa-sektorea eraldatzekoa) garatzen duen dekretuaren esparruan”,* 3. helburu estrategikoan (*“ETEEi eta banakako enpresaburuei finantzaketan laguntzea”*), Finantza Politikako Zuzendaritzaren 6311. programan. Honela geratuko da:

FINANTZA-POLITIKAKO ETA GIZARTE-AURREIKUSPENEN ZUZENDARITZA
6311. programa

3. helburu estrategikoa: ETEEi eta banakako enpresaburuei finantzaketan laguntzea

2. dirulaguntza-lerroa: kobraezinak estaltzea, eta elkarrekiko berme-baltzuetako hornidura teknikoen funtsa indartzea

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: elkarrekiko berme-baltzuen jarduera indartzea, beren bazkideei (enpresa txiki eta ertainei edo banakako enpresaburuei) finantzaketa eskuratzen laguntzen dieten erakunde mutualista diren aldetik.

Ekintza: enpresa txiki eta ertainei zein banakako enpresaburuei finantzaketa-kostuak murrizten laguntzea, erakunde horiek emandako abala duten arriskuen birfinantzaketa eginez. Jarduketa zehatzak:

- 2024rako beste bi birfinantzaketa-hitzarmen formalizatzea. Hala, 2025-2027 aldirako, urtean bi hitzarmen berri formalizatzea aurreikusten da
- Hitzarmenak betetzea aldizkako likidazioak eginez
- Elkargi EBBren hornidura teknikoen funtsa sendotzeko dirulaguntza izenduna egituratuko duen hitzarmen berri bat formalizatzea Era berean, 2025-2027 aldirako Elkargi EBBrekin hitzarmen berriak formalizatzea, hornidura teknikoen funtsa indartze aldera.
- Beste hitzarmen bat formalizatzea Elkargi EBBrekin, Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretu-proiektuaren esparruan (Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko da lerro hori).

Adierazleak:

Bi birfinantzamendu-hitzarmen berri.

Hitzarmen bat, hornidura teknikoak sendotzeko.

Lau ordainketa, hitzarmenetik eratorritako kobraezinetarako (hiru hilean behin).

Ordainketa bat, hornidura teknikoen funtsa sendotzeko.

Hitzarmen bat Elkargi EBBrekin, Indartuz lerroa.

Finantza-erakundeekin egindako hitzarmenak.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2026: Zenbatekoa: 3.008.711 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.239 22/0804
Kobraezinak ordaintzeko birfidantzamendu-hitzarmenak.

2026: Zenbatekoa: 150.000 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0800
ELKARGIren aldeko dirulaguntza, hornidura teknikoen funtserako.

Elkargi EBBren kapitalari ekarpena egiteko konpromisoa jasota dago Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretu-proiektuaren 1. artikulua azken paragrafoan, eta xehetasun handiagoz araututa dago hitzarmenaren bosgarren klausulan. Hala, konpromisoaren xedea da jarduketa horiek murrizketarik ez eragitea elkarrekiko berme-baltzuaren kaudimenean. Nolanahi ere, indarrean dagoen araudiaren arabera, Gobernu Kontseiluak baimendu beharko ditu ekarpen horiek.

2025-2027 aldia. Elkargi EBBri zenbateko bera duten dirulaguntza izendunak ematea aurreikusten da, hornidura teknikoen funtsa sendotzeko.

c) ZER SEKTORETARAKO DIREN, ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

Emateko prozedura:

Bi birfinantzamendu-hitzarmen oinarritzko eta osagarri berri Elkargi EBBrekin, 2024ko ekitaldian formalizatutako finantza-abaletarako.

Elkargi EBBren hornidura teknikoen funtsa indartzeko dirulaguntza izenduna egituratzeko hitzarmen bat, EBBk ekitaldian izan duen abal-jarduerari lotua.

Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretua eta dagozkion deialdiaren aginduak; horrez gain, dekretuaren esparruan Elkargi EBBrekin eta finantza-erakundeekin formalizatzen diren finantzaketa-lankidetzako hitzarmenak.

4. dirulaguntza-lerroa: Elkargi EBBk formalizatutako maileguen abal-komisioaren % 100 diruz laguntzea, Indartuz finantzaketa-lerroa (enpresa-sektorea eraldatzeko) garatzen duen dekretuaren esparruan.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: ETEen eta banakako enpresaburuaren inbertsioa sustatzea eraldaketa energetikoa, jasangarria, digitala, teknologikoa, industrial edo hazkuntzakoa lortzea xede duten proiektuetan.

1. ekintza: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Elkargi EBBren arteko hitzarmena kudeatzea Indartuz finantzaketa-lerroa garatzeko (Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko helburua du).

Adierazleak:

Lau ordainketa, abal-komisioarengatiko dirulaguntzarako.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2026: Zenbatekoa: 1.878.133 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

2027: Zenbatekoa: 2.625.000 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

2028: Zenbatekoa: 2.231.250 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

2029: Zenbatekoa: 1.706.250 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

2030: Zenbatekoa: 1.443.750 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750 21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

Gainerakoa: Zenbatekoa: 3.281.250 € Aurrekontu-aplikazioa: 1.63110.750
21/0802 Abal-komisioarengatiko dirulaguntza

Dekretu honek araututako finantzaketa-lerroak eskuratzeko, deialdi bakarra edo hainbat egingo dira. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei jarraikiz. Ogasun eta Finantzetako sailburuak egingo ditu deialdiak.

c) ZER SEKTORETARAKO DIREN, ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: ETEak eta banakako enpresaburuak.

Emateko prozedura: Indartuz finantzaketa-lerroa (Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko) garatzen duen dekretu-proiektuaren esparruan jasotakoari jarraituko zaio, eta horretarako lankidetzeta-hitzarmena sinatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Elkargi EBBk. Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzak aldeko administrazio-ebazpenaren bidez baliozkotuko ditu onetsitako mailegu-eragiketak.

Bigarrena. Agindu hau argitara ematea dagozkion bitarteko ofizialen bidez, eta, edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzea, eta Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean txertatzea, "Planak eta proiektuak" atalean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 15a.